

ehbildu



zerbitzua
euskaraz



EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL	
2017 ABE. 11 DIC. 11	
SARRERA/ ENTRADA	8012 IRTEERA/ SALIDA

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Miren Larrion Ruiz de Gauna EH Bildu Taldeko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordeak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo INTERPELAZIOA egiten dio Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuari, Europar Batzordeak Goi Mailako Hezkuntzaz egiten dituen 6 gomendioak garatzeko dituen asmoez.

ZIOA:

Iragan azaroaren 17an Europar Batzordeak 'Hezkuntzaren eta Kulturaren bitartez Europar Identitatea Indartzeko' ekarpena kaleratu zuen, Göteborg-en, Suedian. Aipatu dokumentuarekin ondoren zerrendatzen diren 6 gomendioen inguruan eztabaidatu dezaten eta norabide estrategikoa eman diezaioten gonbidatzen dira agintariak.


1. Erasmus+ programa indartzea.
2. Hizkuntzen irakaskuntzan hobekuntzak egitea.
3. Goi mailako tituluaren aitortza.
4. Finantziario gaitasuna indartzea.
5. Unibertsitateen alde lan egitea.
6. Euronews.

Hori dela eta, EH Bildu legebiltzar-taldeak ondorengo INTERPELAZIOA egiten dio Hezkuntza Sailburuari:

INTERPELAZIOA

Zer nolako asmoak ditu Hezkuntza Sailak Europar Batzordeak Goi Mailako Hezkuntzaz egiten dituen 6 gomendioak garatzearen inguruan?

Gasteizen, 2017ko abenduaren 11n



Miren Larrion Ruiz de Gauna

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea



A LA MESA DEL PARLAMENTO

Miren Larrion Ruiz de Gauna, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, formula la siguiente interpelación a la consejera de Educación, Cristina Uriarte, sobre las intenciones para desarrollar las seis recomendaciones formuladas por la Comisión Europea respecto a la educación superior.

JUSTIFICACIÓN:

El pasado 17 de noviembre la Comisión Europea publicó en Gotemburgo, Suecia, su contribución para el “refuerzo de la Identidad Europea a través de la Educación y la Cultura”. Con el mencionado documento se invita a los dirigentes a que debatan sobre las seis recomendaciones que se relacionan y a que le den una dirección estratégica.

1. Fortalecer el programa **Erasmus+**.
2. Realizar mejoras en la **enseñanza de idiomas**.
3. **Reconocimiento de los títulos** de nivel superior.
4. **Fortalecer la capacidad de financiación**.
5. Trabajar **a favor de las universidades**.
6. **Euronews**.

Por ello, el grupo parlamentario EH Bildu formula la siguiente INTERPELACIÓN a la consejera de Educación:





INTERPELACIÓN

¿Qué intenciones tiene el Departamento de Educación para desarrollar las seis recomendaciones formuladas por la Comisión Europea respecto a la educación superior?

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2017

Miren Larrion Ruiz de Gauna

Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

